

APROBETXAMENDUEN ARDURADUNA. 2020KO TESTA

35 galdera, beste 5 erreserbakoak

ERANTZUN ZUZENA:	1 PUNTU
ERANTZUN OKERRA:	-1/3 PUNTU
DENBORA:	50 MINUTU

- 1. Non zehazten dira Alegria ibaiaren ezaugarriak eta haren inguruko proposamenak?**
 - a) Ebro Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan.
 - b) Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan.
 - c) Ebroko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan.
 - d) Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroetako Plan Hidrologikoan.

- 2. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren eremuan, zertarako dira kontsumo-erabileratarako ur ateratze garrantzitsuenak?**
 - a) Industria-erabileretarako, hargune propioetatik.
 - b) Herriguneen hornidurarako.
 - c) Ureztapenerako.
 - d) Aurreko erantzun bat ere ez da zuzena.

- 3. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudiarekin bat etorritz, azaleko ur-bilketen kasuan, oro har, babes-eremua osatuko du arro isurlearen gainean erradio finko batez mugatutako azalera batek. Zenbatekoa?**
 - a) 100 m, 15.000 biztanletik gorako populazioari zerbitzu ematen duten hornidura-sistemen bilketetan.
 - b) 500 m, 15.000 biztanletik gorako populazioari zerbitzu ematen duten hornidura-sistemen bilketetan.
 - c) 200 m, 15.000 biztanletik gorako populazioari zerbitzu ematen duten hornidura-sistemen bilketetan.
 - d) 50 m, 15.000 biztanletik gorako populazioari zerbitzu ematen duten hornidura-sistemen bilketetan.

4. Uren Legearen Testu Bateginak ezarritakoaren arabera, jarraian zehaztutako aukeretatik bat EZ da uren kudeaketarako printzipio gidaria. Zein da?

- a) Kudeaketa-unitatea, tratamendu integrala, uraren ekonomia, deskontzentrazioa, deszentralizazioa, koordinazioa, efikazia eta erabiltzaileen parte-hartzea.
- b) Toki-administrazioen lurralde-mugaketa errespetatzea.
- c) Arro hidrografikoaren, sistema hidraulikoen eta ziklo hidrologikoaren batasuna errespetatzea.
- d) Uraren kudeaketa publikoa bateragarria izatea lurraldearen antolamenduekin eta ingurumena kontserbatu, babestu eta lehengoratzearekin.

5. Uren Legearen Testu Bateginak ezarritakoaren arabera, ibilgu naturaletatik igarotzen diren bitartean, zeintzuk dira ohiko erabilerak?

- a) Edatea, bainatzea eta etxeko beste erabilera batzuk, baita ganaduari edaten ematea ere, administrazio-baimenik gabe eta legeek eta erregelamenduek xedatzen dutenarekin bat etorrira.
- b) Edatea, bainatzea, nabigatzea eta ganaduari edaten ematea, betiere dagokion administrazio-baimena izanez gero.
- c) Edatea, bainatzea eta nabigatzea, administrazio-baimenik gabe eta legeek eta erregelamenduek xedatzen dutenarekin bat etorrira.
- d) Edatea, bainatzea, nabigatzea eta ganaduari edaten ematea, betiere dagokion erantzukizunpeko adierazpena izapidetuz gero.

6. Uren Legearen Testu Bateginak ezarritakoaren arabera, lur batean dauden iturburuetatik datozen urak erabili ahal izango dira, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, eta lur azpiko urak ere aprobeztatu ahal izango dira, betiere urteko bolumena kopuru batetik gorakoa ez bada. Zein da kopuru hori?

- a) 20.000 litro.
- b) 100.000 litro.
- c) 7.000 metro kubiko.
- d) 10.000 metro kubiko.

7. Uren Legearen Testu Bateginak ezarritakoaren arabera, baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

- a) Administrazio hidraulikoa behartuta egongo da dagozkion neurketa-sistemak instalatzen eta mantentzen, benetan kontsumitu edo erabilitako ur-emariei buruzko informazio zehatza ziurtatzeko.
- b) Ur-emakida administratiboen titularrak eta edozein titulu dela-eta horien erabilera pribatiborako eskubidea duten guztiak behartuta egongo dira dagozkien neurketa-sistemak instalatzen eta mantentzen, benetan kontsumitu edo erabilitako eta, hala dagokionean, itzulitako ur-emariei buruzko informazio zehatza ziurtatzeko.
- c) Ur-emakida administratiboen titularrak behartuta egongo dira dagozkien neurketa-sistemak instalatzen eta mantentzen, aprobetxamenduaren uretan gorako emari ekologikoei buruzko informazio zehatza ziurtatzeko.
- d) Administrazio hidraulikoak ur-emakida administratiboen titularrei eskatuko die benetan kontsumitu edo erabilitako ur-emariei buruzko informazioa.

8. Ur-emakidei buruz, adierazi zein den baieztapen zuzena:

- a) Aldi baterako emango dira urtean 5.000 metro kubikotik gorakoak badira.
- b) Aldi baterako emango dira eta, gehienez ere, hirurogeita hamabost urterako.
- c) Emakiden epea mugatu egingo da, herritarren hornidurarako edo ureztatzerako izan ezik, eta gehienez ere, hirurogeita hamar urterako izango dira.
- d) Ez da denbora-mugarik ezarriko, betiere, ura hartzen den ur-masa egoera ekologiko onean badago.

9. Emari ekologikoei dagokionez, zein da baieztapen zuzena?

- a) Ez dira erabiltzekoak, ustiapen-sistemei izaera orokorrean inposatzen zaien murrizketa gisa ulertu beharko da.
- b) Murrizketa gisa hartu beharko dira, emariak ateratzen diren ur-masen egoera ekologikoa ona ez bada.
- c) Agorraldian aprobetxamendu-emakida emateko baldintza gisa ezarriko dira.
- d) Aprobetxamendu-emakida emateko baldintza gisa ezarriko dira, betiere, herritarren hornidurarako eta ureztatzerako erabiliko ez badira.

10. Zer da ibilgu baten emari ekologikoa?

- a) Zirkulazioan dabilen gutxienekoa, zeina nahikoa izaten den ibai-ekosistemak kontserbatzeko.
- b) Batez besteko emaria agorraldian.
- c) Gutxieneko emaria agorraldian.
- d) Urteko batez besteko emariaren % 10.

11. Nola ezartzen da uraren erabilera-lehentasuna?

- a) Emakida-eskaerak Arroen Erakundearen sartzaren hurrenkeraren arabera ezartzen da.
- b) Uren Legearen Testu Bateginean dago ezarrita, eta hurrenkera hori ezin izango da aldatu dagokion arroaren Plan Hidrologikoetan.
- c) Autonomia-erkidago bakoitzak onartutako araudietan dago ezarrita.
- d) Dagokion arroaren Plan Hidrologikoan ezarriko da, baliabidea eta haren ingurunea babesteko eta kontserbatzeko betekizunak kontuan hartuta.

12. Uren Legearen Testu Bateginak ezarritakoaren arabera, baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

- a) Uren aprobetxamendu bat ematen duen Administrazioak emandako emariak osorik edo haien zati bat ordezteko ezarri ahal izango du beste jatorriko bateko emariengatik, baliabidearen aprobetxamendua arrazionalizatzeko asmoz.
- b) Uren aprobetxamendu bat ematen duen Administrazioak emandako emariak osorik edo haien zati bat beste jatorriko bateko emariengatik ordezteko ezarri ahal izango du baliabidearen aprobetxamendua arrazionalizatzeko asmoz.
- c) Uren aprobetxamendu bat ematen duen Administrazioak ezin izango ditu emakidaren baldintzak aldatu hartarako emandako epea igaro arte.
- d) Uren aprobetxamendu bat ematen duen Administrazioak emariaren zati bat ordezteko ezarri ahal izango du, baina emakidaren titularrak aldatuta bat sustatzen duenean bakarrik.

13. Uren Legearen Testu Bateginak ezarritakoaren arabera, uren erabilera pribatiborako eskubidea, eskuratzeko titulua edozein dela ere, iraungitzat joko ahal da. Zein kasutan?

- a) Ustiapena behin betiko eteten bada ondoz ondoko bost urteetan.
- b) Ustiapena behin betiko eteten bada ondoz ondoko hiru urteetan, betiere ustiapenaren etena titularrari egotzi ahal bazaio.
- c) Ustiapena behin betiko eteten bada ondoz ondoko bi urteetan, betiere titularrari egotzi ahal bazaio.
- d) Emakida-epea igarotzen denean bakarrik.

14. Uren Legearen Testu Bateginean ezarritakoaren arabera, Uren Erregistroari dagokionez, zein da erantzun zuzena?

- a) Edozein pertsona fisikok nahiz juridikok kontsulta dezake, betiere interesduna dela akreditatzen badu.
- b) Erregistro horretan inskribatzen dira, autonomia-erkidegoak eskatuta, ur-emakidak, baita haien titulartasunean gertatzen diren baimendutako aldaketak ere.
- c) Publikoa da eta toki-administrazioei dagokie haren funtzionamendurako arauak finkatzea.
- d) Publikoa da eta ofizioz inskribatuko dira bertan ur-emakidak, baita haien titulartasunean edo ezaugarrietan gertatzen diren baimendutako aldaketak ere.

15. Uren Legearen Testu Bateginak ezarritakoaren arabera, baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

- a) Administrazio eskudunen ardura izango da toki-erakundeek uraren prezio egokia ezartzen dutela eta uraren erabilera eraginkorra sustatzen dutela ziurtatzea; hala ere, ezingo dute kanon berririk ezarri.
- b) Administrazio eskudunek mekanismo egokiak ezarriko dituzte ingurumen-kostuak eta baliabide-kostuak egozteko, baldin eta ur-masaren egoera egokia lortzen ez bada.
- c) Administrazio publiko eskudunek, kostuak berreskuratzeko printzipioari erantzunez eta epe luzeko proiektzio ekonomikoak kontuan hartuta, mekanismo egokiak ezarriko dituzte uraren kudeaketarekin lotutako zerbitzuen kostuak, ingurumen- eta baliabide-kostuak barnean hartuta, azken-erabiltzaileei egozteko.
- d) Administrazio eskudunek ez daukate inolako betebeharririk kostuak berreskuratzeari dagokionez.

16. Nori dagokio jabari publiko hidraulikoko ibilguen apeoa eta mugaketa?

- a) Estatuko Administrazio Orokorrari.
- b) Toki-administrazioari.
- c) Autonomia-erkidegoko administrazioari.
- d) Ondoko lursailen titularrari.

17. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan adierazitakoaren arabera, akueduktu-zortasun nahitaezkoa ezarri nahi zaion lursailaren jabeak aurka egin ahal izango du. Zein kasutan?

- a) Eskatzaileak ez badu uraren eskuragarritasuna egiaztatzen.
- b) Zortasuna interes pribatuko xedeetarako baliatu nahi duen lursailaren jabetza ez bada egiaztatzen, baldin eta eskuragarritasuna emakida-titulua ez den beste titulu batetik eratorren bada, Uren Legean aurreikusitako salbuespenezko kasuen babesean.
- c) Zortasuna beste lur batzuetan ezar badaiteke, zortasun hori ezarri nahi duenarentzat abantaila berberak eta zortasuna jasan behar duenarentzat eragozpen gutxiago dituen lurretan, hain zuzen.
- d) Aurreko erantzunetan adierazitako edozein kasutan.

18. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan adierazitakoaren arabera, emari ekologikoen betekizuna ustiapen-sistema guztietan bete beharko da?

- a) Salbuespenik gabe.
- b) Herriguneen hornidura izango da salbuespena, alternatiba arrazoizkorik ez badago beharrian horri erantzuteko, eta plangintza Lurzoruaren eta Hiri Errehabilitazioaren Legearen testu bateginaren arabera egiten bada.
- c) Herriguneen hornidura eta ureztatzea izango dira salbuespenak, alternatiba arrazoizkorik ez badago beharrian horiei erantzuteko.
- d) Salbuespen bakarra izango da kasuan kasuko arroaren Plan Hidrologikoak betekizun hori betetzetik salbuestea.

19. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan adierazitakoaren arabera, emari ekologikoen erregimenaren kontrola eta jarraipenari dagokionez, baieztapen hauetatik zein da zuzena?

- a) Ur-emaria neurtzeko aroko erakundeetako estazioen sarekoak baino ez dira erabiliko.
- b) Ur-aprobetxamenduetako titularrak behartuta daude emari ekologikoak mantentzeari buruzko informazio zehatza bermatzen duten neurketa-sistemak instalatzera eta mantentzera, baina bakarrik presa bat baldin badago urtegiarekin.
- c) Ur-aprobetxamenduetako titularrak behartuta daude emari ekologikoak mantentzeari buruzko informazio zehatza bermatzen duten neurketa-sistemak instalatzera eta mantentzera.
- d) Arroko erakundeek instalatuko dituzte jarraipena eta kontrola egiteko beharrezkoak diren elementuak.

20. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan adierazitakoaren arabera, ur-masa batean emari ekologikoen erregimena sistematikoki betetzen ez bada, ingurumen-helburuak ez lortzeko arriskuan dagoen ur-masa gisa sailkatuko da, baldin eta ez-betetzea epe jakin batez luzatzen bada. Zein da epe hori?

- a) Hilabete oso batez.
- b) Ondo ondoko bi hilabetez.
- c) Ondo ondoko hiru hilabetez.
- d) Ondo ondoko lau hilabetez.

21. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoan, herriguneen hornidurarako emakidei dagokienez, baieztapen hauetatik zein da zuzena?

- a) Emari ekologikoen erregimenaren gaintik daude beti.
- b) Ez daude sekula emari ekologikoen erregimenaren gaintik.
- c) Emari ekologikoen erregimenaren gaintik daude, baina bakarrik 2.000 biztanletik gorako herriguneetan.
- d) Emari ekologikoen erregimenaren gaintik daude ohiko lehorteko egoeretan, beste hornidura-alternatiba bideragarriarik ez badago, eta baldintza jakin batzuk betetzen badira.

22. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan adierazitakoaren arabera, hainbat udalerritako herriguneen hornidurarako ur-emakida izapidetzeko eskaria, nork sinatu behar du?

- a) Biztanle-kopuru handiena duen udalerririk.
- b) Udalerrien %50eko ordezkariak, gutxienez.
- c) Mankomunitateak, Partzuergoak edo antzeko erakundeak.
- d) Ur hornidurako zerbitzua emango duen enpresak.

23. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan adierazitakoaren arabera, urbanizazio isolatu baten hornidurarako ur-emakidaren eskarian, herriguneen hornidurarako emakidatarako beharrezkoak diren dokumentuez gain, zer aurkeztu beharko da?

- a) Urbanizazioa kokatuta dagoen udalerriko alkatearen ziurtagiria, urbanizazioa ezin dela udal-instalazioetatik hornitu ziurtatzen duena.
- b) Administrazio eskudunaren osasun-txostena, bilketaren egokitasuna, uren osasun-kalifikazioa eta edangarri egiteko beharrezkoak diren minimoei buruzkoa.
- c) Teknikari eskudunak sinatutako txostena, non urak edangarriak egiteko sistema proposatuko den.
- d) Isolatutako urbanizazioaren biztanleria-errola.

24. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan adierazitakoaren arabera, jarraian zehaztutako kasu hauetatik zeinetan EZ dago aurreikusita emakida bat berrikustea?

- a) Emakida emateko kausa erabakigarrietan aldaketak daudenean.
- b) Ezinbesteko kasuetan, emakidadunak eskatuta.
- c) Plan Hidrologikoetara egokitzeak hala eskatzen duenean.
- d) Titularraren nortasuna aldatu nahi denean.

25. Nor da presetan segurtasun-arauak betetzearen arduraduna?

- a) Dagokion arroko erakundea.
- b) Autonomia erkidegoko babes zibileko batzordea.
- c) Obraren ardura duen ingeniaria.
- d) Presaren titularra, presaren fase guztietan.

26. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan adierazitakoaren arabera, nola dago antolatuta Uren Erregistroa?

- a) Bi sekziotan: A eta B.
- b) Hiru sekziotan: A, B eta C.
- c) Lau sekziotan: I, II, III eta IV.
- d) Lau sekziotan: A,B,C eta D.

27. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan adierazitakoaren arabera, Uren Erregistroko Bulegoari dagokionez, baieztafen hauetatik zein da zuzena?

- a) Arroko erakunde bakoitzean sortzen da, eta Ur Komisaldegian dago integratuta.
- b) Autonomia-erkidego bakoitzean sortzen da, eta Ingurumen Sailaren mende dago.
- c) Demarkazio Hidrografiko bakoitzean sortzen da, eta Konfederazio Hidrografikoaren mende dago.
- d) Ingurumen Ministerioan sortzen da, eta Uraren Zuzendaritza Nagusian dago integratuta.

28. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan adierazitakoaren arabera, jarraian zehaztutako eginkizunetako bat EZ da Uren Erregistroko Bulegoaren erantzukizuna. Zein da?

- a) Ur-aprobetxamendurako emakida-espeditenteak izapidetzea.
- b) Onartutako eskubideei buruzko inskripzioak egitea.
- c) Uren Erregistroa kudeatzea eta ur pribatuen katalogoa zaintzea.
- d) Uren Erregistroaren edukiari buruzko informazioa ematea erakunde publiko eta pribatuei.

29. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan adierazitakoaren arabera, Uren Erregistroa osatzen duen egitura informatikoari dagokionez, jarraian zehaztutako baieztapenetatik bat EZ da zuzena. Zein da?

- a) Uren Erregistroa osatzen duen egitura informatikoa bakarra izango da arroko erakunde guztientzat, eta ministerio-agindu bidez zehaztuko den aurrez ezarritako datu-eredu bati egokituko zaio jarraituko du.
- b) Ur-aprobetxamenduei eta aprobetxamenduen irudikapen kartografikoari buruzko informazioa bilduko duten datu alfanumerikoz egongo da osatua.
- c) Inskripzio bakoitzaren informazioarekin dokumentu elektronikoa bat sortuko da, Uren Erregistroko funtzionario arduradunak elektronikoki sinatuko du eta inskripzioen gordailu elektronikoan gorde.
- d) Uren Erregistroa osatzen duen egitura informatikoa arroko erakundeak finkatuko du, eta Ministerioari informazioa formatu elektronikoan edo paperean igortzeko aukera emango du.

30. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan adierazitakoaren arabera, nondik jasotzen dira Uraren Gordailu Nagusia osatzen duten datuak?

- a) Arroko erakundeek Uren Erregistroetatik.
- b) Arroko erakundeek Uren Erregistroetatik eta eskumenak transferituta dituzten autonomia-erkidegoetako Administrazio hidraulikoetatik.
- c) Arroko erakundeetako Ur Pribatuen Katalogotik eta eskumenak transferituta dituzten autonomia-erkidegoetako Administrazio hidraulikoetatik.
- d) Uren Erregistroetatik, Ur Pribatuen Katalogotik eta arroko erakundeetan eta eskumenak transferituta dituzten autonomia-erkidegoetako Administrazio hidraulikoetan dauden gainerako errolda edo erregistroetatik.

31. 181/2008 Dekretuaren arabera, uraren kanona ordaintzetik EZ dago salbuetsita jarraian zehaztutako kontsumoetako bat. Zein da?

- a) Suteak itzaltzeko erabiltzen den ura, eta agintari publikoek behar-beharrezkoa denean edo hondamendiren bat gertatu denean erabiltzeko agintzen duten ura.
- b) Ur gezaren erabilera ordezkatzeko biltzen den itsasoko ura.
- c) Ura berriz erabiltzea eta kontsumo-erabilerarako ez baina uraren bidez energia lortzeko edo bestelako industria erabilerak gauzatzeko, ur horren bolumena eta kalitatea aldatzen ez badira.
- d) Etxeko hornidura saretik hartzen ez den urteko kontsumoa, 300 metro kubikotik beherakoa.

32. 181/2008 Dekretuaren arabera, jarraian zehaztutako kasu batean %70eko hobariak eman daitezke uraren kanonaren zerga-oinarrian. Zein kasutan?

- a) Industria-erabilerarako kontsumoan, betiere eskura dauden teknikarik onenak erabiltzen badira edota ingurumen kudeaketako ziurtagiria (Europar Batasuneko EMAS Erregelamenduaren aurreikuspenekin edo ISO 14001 sistemarekin bat etorrita) edo EKOSCANen ziurtagiria dagoenean.
- b) Euri-uren edo jariatze-uren erabileran.
- c) Uraren Euskal Agentziak ziurtatutako industria-erabilerarako ur-kontsumoak murrizteko plana dagoenean.
- d) Nekazaritza eta abeltzaintzako erabileran, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza sektoreko organo eskudunak egiaztatzen badu EAeko Nekazaritza-lanetan Egoki Jarduteko Kodea, ustiapen-koadernoak, Ingurumen-kontratua edo antzeko akreditazioak betetzen direla.

33. Uraren Zuzendaritza Nagusiaren 2016ko urtarrilaren 19ko Ebazpen bidez onartutako Gomendio Hitzarmenaren arabera, aprobetxamenduekin lotuta, zeintzuk dira URari agindutako jarduerak?

- a) Aprobetxamendu araugabeen inguruan gerta daitezkeen arau-hausteak detektatzea.
- b) Aprobetxamendu-emakidak izapidetzea erkidego arteko arroetan, eta haien zaintza eta zehapena.
- c) Aprobetxamendu-emakidak izapidetzea eta zaintzea, zehapena Konfederazio Hidrografikoen esku baitago.
- d) URaren esku ez dago aprobetxamenduekin lotutako jarduerarik, jarduera horiek ez baitira agintzeko modukoak.

34. Kontsumorako Uraren Informazio Sistema Nazionalaren (KUISN) Aginduaren arabera, baieztapen hauetatik zein EZ da zuzena?

- a) KUISNen alta emanda dagoen edozein hornidura-eremuri buruzko informazio orokorra kontsultatu ahal izango duela kontsumitzaileak.
- b) Osasun-agintaritzak susmoa badu kontsumorako ura kutsatuta dagoela, KUISN ez den beste formatu batean eskatu ahal izango diola informazioa kudeatzaileari.
- c) 500 biztanletik beherako udalerriek ez dutela nahitaez erabili behar KUISNen aplikazioa Internet bidez.
- d) Aginduaren helburuen artean otsailaren 7ko 140/2003 Errege Dekretua garatzea dagoela. Giza kontsumorako uraren kalitatearen osasun-irizpideak ezartzen dira Dekretu horretan.

35. Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, administrazio-egintzak ematen direnetik jakinarazteko epea zein da?

- a) Bost egun.
- b) Zazpi egun.
- c) Hamar egun.
- d) Hamabost egun.

ERRESERBAKO GALDERAK

36. Euskal Autonomia Erkidegoko Uren 1/2006 Legearen arabera, hirigintza-plangintzako dokumentuei hasierako onspena eman ondoren Uraren Euskal Agentziak egindako txostena horrelakoa izango da:

- a) Loteslea.
- b) Ez-loteslea.
- c) Nahitaezkoa eta ez-loteslea.
- d) Ez-nahitaezkoa.

37. Lan-arriskuen Prebentziorako Legearen arabera, segurtasun- eta osasun-batzordea eratuko da enpresak edo lantokiak honenbesteko langile-kopurua baldin badu:

- a) 50 langile edo gehiago.
- b) 100 langile edo gehiago.
- c) 150 langile edo gehiago.
- d) 200 langile edo gehiago.

38. Giza kontsumorako uren kalitatearekin loturiko osasun-irizpideak ezartzen dituen araudiaren arabera, baieztapen hauetatik zein EZ da zuzena?

- a) Giza kontsumorako uraren osasun-zaintza osasun-agintaritzari dagokio, eta hark zaindu beharko du horniduraren aldizkako osasun-ikuskapenak egiten direla.
- b) Osasun-agintaritzari dagokion giza kontsumorako uraren kalitate-kontrolaren barruan sartzen da giza kontsumorako uraren autokontrola eta osasun-zaintza.
- c) Giza kontsumorako uraren kalitatearen autokontrola horniduraren zati bakoitzaren kudeatzaileari dagokio.
- d) Kudeatzaileak osasun-administrazioari eskatu ahal izango dio aldi baterako salbuespen-egoerak baimentzea.

39. Jarraian zehaztutako helburuetatik, bat EZ da Uraren Gordailu Nagusiarena. Zein da?

- a) Plan Hidrologiko Nazionala egitea.
- b) Uraren estatistikak egitea
- c) Ur-masa nagusien emari ekologikoak ezartzea.
- d) Uren emakida-egoerari buruzko informazioa Europar Batasunari bidaltzea.

40. Parshall estazioaren bidez, zer neurtuko dugu?

- a) Presio-hodietako emaria.
- b) Kanal irekietako emaria.
- c) Azpi-presioko drainen presioa
- d) Manning zenbakiak.